

Merkatuaren segmentazioa

Gure enpresak eskaintzen dituen zerbitzuak kontuan hartuta, ezin dizkiegunez bezero guztiei gure zerbitzuak eskaini, gure enpresa 3 bezero segmentu nagusientzat zuzenduta egongo da: lehenengoa, maskotak dituzten pertsonak, bigarrena, jende nagusia eta erresidentziak eta azkenik, udaletxea.

2024an estimatu egin da Espainiako etxeen %49ak gutxienez maskota bat dutela. Beraz, esan dezakegu ia Espainiako biztanleriaren erdia interesatzen zaigula. Biztanleria horren %80ak beraien familiaren kide bezala hartzen dituzte haien maskotak, beraz, ulergarria da kanpoan egotekotan nahi izatea haien animaliak leku hoberenean egotea. Gure bezero printzipalak maskoten jabeak izango dira, horrela haien maskotak zaindu ahal ez dituztenean, gure zerbitzua beti prestatuta egongo da haiek laguntzeko; bai egunean zehar bai gauetan kanpoan daudenean.

Aldi berean, jende nagusiari laguntzea dugun proposamena aurrera eramateko, nahiz eta gure helburua nagusiak laguntzea izan, ez dugu haiekin zuzenean tratatuko. Adinekoek %15 eta %25 arteko bakardade-tasa iraunkorra dute, hau konpontzen saiatzeko, Barakaldoko Udalarekin harremanetan jarriko gara, haiek jende nagusiaren erregistro bat daukatelako. Eta, beraz datu guzti horiekin, programa bat egin dezakete gure zerbitzua eskaintzeko, non gure proposamena zertaz doan azaltzen duten hitzaldi batzuen bidez. Ondoren, nagusiak nahi izatekotan, gure zerbitzuak kontratatu ditzateke. Horregatik interesatzen zaigu Udalak proiektu berri hau gustuko izatea, haiek direlako jende nagusiarekin kontaktuan jarriko direnak. ABCk egin zuen ikerketa baten arabera, jende nagusiaren %32a maskota batekin bizi da; gure helburua ehuneko hori igotzea da, maskotek jende nagusia izugarri laguntzen baituzte.

Azterlan baten arabera, egoitzetan bizi diren adinekoen % 46 bakarrik sentitzen dira, eta etxean dauden pertsona nagusiekin batera, oso kasu larriak dira. Egoera honi aurre egiteko eta gure egoitza Barakaldon dagoenez, zehazkiago El Regaton, Barakaldoko nagusien egoitzekin lan

egingo dugu. Barakaldoko ia egoitza guztiak pribatuak dira, bat izan ezik, CIS, eguneroko egoitza publiko bat dena. Hau kontuan hartuta, gure kontuz doa egoitza hauekin kontaktuan jartzea. Lehen azaldu dugun bezala, CIS egoitza Barakaldoko Udaletxearen kontuz doa, hauekin jada lan egingo dugunez, informazio guztia eskuratu ahal dute.